

Marka onak A.A.F-ko kontrolean

VITORIA-GASTEIZ - 2013/12/07



Pasa den igandean, abenduak 7, Arabako Atletismo Federazioak lehenengo kontrola antolatu zuen “Martin Fiz” Estalitako Moduluan. Zailuko 9 atletek parte hartu zuten lehiaketan, bat baino gehiagoko marka pertsonalen eta kalitatezko hainbat erregistroen poztasunarekin.

Aintzane Santamariak 60 metro hesietan parte hartu zuen, finalerdietan 9.74 segunduko denborarekin estalita pistako Espaina Junior Txapelketarako minima lortu zuen; emaitza honekin bere erregistro pertsonala berdintzen du, 2012 ko otsailak 4an egindakoa lehen urteko gaztea izaten. Aintzane, aurten konbinatu proba prestatzen ari da -pentatloi estalita pistarako eta heptatloi aire zabalerako-, luzera jauzian parte hartu zuen ere, bere aurreko marka -2012ko maiatzak 13an eginda- 4,77 m-koa (+1,7) gaindituz ia 20 cm-tan; 4,95 metroko erregistroarekin proban 2. izan zen. Izaugarria gure atletaren errendimendua denboraldiko lehen parte-hartzean.

Gizonezko 60 metroak parte-hartze gehiengo proba izan zen, 8 finalerdiko serieak 41 atletek elkartu zituen. Osmar Ruiz de Arcautek, promesa 2. urteko atleta, finalerdian kronoa 7.17 segundotan gelditu zuen eta 7.18 segundo finalean, 2. tokia okupatzen. Bi emaitzak bikainak izan ziren atletarako, bere marka pertsonalera hurbildu zen 7.10 s-koa. Marka honek RFEA-k eskaintzen du Espainako txapelketan parte hartzeko. Aupa Osmar!!! Hurrengo proban aterako da!!!

Erik Fernandez de Lecetak 7.58 egin zuen finalerdian, bere seriean 2. amaituz eta finalean sartzeko zentesima gutxietara geldituz. Erik, erreakzio ona duen atletak, irteera izugarria egin zuen eta bere lasterketan sartutako aspektu tekniko berriak bideratzen saiatu zen, baina azken metrotan ezin izan zituen egin. Aupa Erik!!! Pixkanaka pixkanaka lortuko duzu!!!

Jokin Cifuentezek, bere marka pertsonala 11 zentezimatan hobetu zuen, 7.62 segun-duko denborarekin bere serieko 3. tokia okupatu zuen finalerdian. Zorionak Jokin!!!

Gizonezko kadeteak, hainbat probatan parte hartu zuten: Gorka de Alavak altuera jauzia irabazi zuen 1,50 metrokin -bere emaitza pertsonala hobetzen 10 cm-tan-, eta 60 metroak 9.06 s-kin. Arkaitz Santamariak 60 metroak 8.34 s-tan egin zituen -aurten eskola 1. jardunaldian egindako 8.52 s-ko emaitza pertsonala gaindituz- eta luzera jauzian bere emaitza pertsonala hobetu zuen ere 4,57 metroko jauziarekin -aurreko emaitza 4,45 m-koa zen. Iñigo Ruiz de Apodakak luzera jauzian 4,57 cm egin zituen-atletaren emaitza pertsonala da, non orain harte 4 metroak ez zituen gainditu-, eta 60 metrotan, lehen aldiz, 9 segundo baino gutxiago egitea lortu zuen, 8.93 s-kin. Andoni Arranzek 60 metroak 8.52 s-tan egin zituen eta luzera jauzian 4,28 m lortu zituen, bere autengo denboraldiaren emaitza pertsonaletara hurbildu zen. ONDO KADETE MUTILAK!!!

Emakumezko 60 metrotan, Sara Chapartegi jaurtitzailleak parte hartu zuen 9.40 segunduko emaitza eginez; gure atleta, iaz euskadiko txapelketan brontzezko domina irabazi zuena, lasterketa labur hauekin elikatzen da, bere abiadura eta erreakzioa hobetzeko. Ondo eginda, Sara!!!

Hurrengo pista-atletismo lehiaketa, abenduaren 14a izango da, Zorrozan.

emaitzak: <https://docs.google.com/file/d/0B7OWHhG2J8m5sMzRPaGgzQUI3NVU/edit>